

EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 143.000 EURO BAINO GEHIAGO EMAN DITUZTE HAURRAK TXERTATZEKO UNICEF-EN, MUGARIK GABEKO MEDIKUEN ETA ACNUR-EN ALDE

Bilbo, 2021eko otsailaren 5a.- [EROSKI](#)k eta haren bezeroek 143.644 euro eman dizkiote dohaintzan [UNICEFi](#), [Mugarik Gabeko Medikuei](#) eta [ACNURi](#), eta zenbait herrialdetako 40.000 haur txertatzeko erabiliko dira, elgorria, polioa eta kolera sendatzeko, hala nola Kongoko Errepublika Demokratikokoak eta Chad ekialdeko eremuetakoak.

Bilboko Ercilla kalean dagoen EROSKI Centerren egin dute dohaintza bertan zirelarik EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun zuzendaria, Alejandro Martinez Berriochoa; UNICEFen EAEko Batzordeko presidentea, Isidro Elezgarai; ACNUR Euskal Batzordeko koordinatzailea, Ynes Pedraz; eta Mugarik Gabeko Medikuek iparraldean duten koordinatzailea, Nagore Eskisabel.

"Eskerrik asko gure bezeroei, emandako erantzunagatik. Ia milioi bat eman dute dohaintzan, eta hiru erakundeek haurrak txertatzeko beren programetan erabiliko dute, garapen bidean diren herrialdeetan. Elkartasun Zentimoak programak, EROSKI bultzatua denak, modua ematen digu gure bezeroen elkartasuna era errazean eta garbian bideratzeko; hala, hilez hil babesten ditugu kolektiborik zaugarrienei laguntzeko helburu duten kausa sozial askotarikoak", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)